# 2025eko KUDEAKETA PLANA

| Helburua | Neurriak | Ekintzak | Nola neurtu? | Arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| **Barakaldoko Udaleko lanpostuen hizkuntza eskakizunak kudeatu*** <br><br> * *Egonkortze-prozesua behin bukatuta* | • 2023-2027 plangintzaldiari dagokion Derrigortasun Indizea bete.<br>• Lanpostu zerrenda euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 DEKRETUAk ezartzen duen formatura egokitu.<br>• Euskara ikasteko baliabideak arautu | • Derrigortasun-data berriak ezarri.<br>• Lanpostu zerrendaren hizkuntza eskakizunen berrazterketa egin, modelo berrira egokitzeko (Irakurmena-idazmena // Entzumena-mintzamena).<br>• Euskara ikasteko baliabideak jasotzen dituzten dekretuak sortu | • DD berriak ezarri dira?<br>• Lanpostu zerrenda berria argitaratu da?<br>• Hizkuntza ekakizunak modelo berrira egokitu dira?<br>• Euskara ikasteko dekretuak onartu dira? | **Euskara Zerbitzua**<br><br>**Giza Baliabideak** |
| **Lidergoa – Arduradun politikoen eta zerbitzuburuen inplikazio aktiboa eta jarrera eredugarriak sustatu** | Formazio eta sentsibilizazio-saioak eskaini, enpresa aditu baten bitartez. | • Enpresa bat kontratatu<br>• Kronograma bat egin arloz arlo saioak egiteko (arduradun politikoak + zerbitzuburuak / atalburuak) | • Enpresa kontratatu da?<br>• Zenbat saio egin dira?<br>• Zein arlotan? | **Euskara Zerbitzua**<br><br>**Udal arlo guztiak** |
| **Euskararekiko atxikimendua eta motibazioa sustatu** | Urtean zehar euskararekiko atxikimendu positiboa bultzatzeko ekintzak antolatu. | • Urtean birritan, behintzat, ekintzak antolatu, testuinguru informal batean euskararen erabilera areagotzeko. | • Zenbat motibazio-ekintza antolatu dira?<br>• Zenbat langilek hartu dute parte? | **Euskara Zerbitzua** |

| Helburua | Neurriak | Ekintzak | Nola neurtu? | Arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| **Herritarrei Erabilera Planaren berri eman** | Barakaldoko Udaleko prentsa-arduradunarekin batera Erabilera Planaren berri emateko estrategia eta bide eraginkorrena aztertu. | • Web orrian Erabilera plana eta Hizkuntza Irizpideak ikusgarri argitaratu.<br>• Prentsaurreko bat egin.<br>• Barakaldoko Udalaren gizarte sareetan argitaratu. | • Udal webgunean Erabilera plana ikusgarri dago?<br>• Prentsaurrekoa egin da?<br>• Barakaldoko Udalaren gizarte sareetan informazioa argitaratu da? | **Euskara zinegotzia**<br><br>**Prentsa arduraduna** |
| **Hizkuntza trebakuntza** | Hizkuntza trebakuntza plana udal langileen beharretara egokitu.<br><br>Beharrezkoa izanez gero, trebakuntza-ikastaro berriak sortu eta eskaini. | • Datu bilketa bat egin, hizkuntza trebakuntzaren esparruan dauden beharrak aztertzeko.<br>• Premia berriak antzemanez gero, ikastaro berriak diseinatu eta eskaini.<br>• Trebakuntza ikastaro guztien jarraipena egin (asistentzia, eraginkortasuna…) | • Datu-bilketan premia berririk antzeman da?<br>• Antzemandako premiei erantzuteko ikastarorik sortu da?<br>• Zenbat langilek / arduradun politikok hartzen dute parte hizkuntza-trebakuntzan?<br>• Ze asistentzia dute?<br>• Ze balorazio egiten dute? | **Euskara Zerbitzua**<br><br>**Udal euskaltegia** |
| **Hizkuntza klausulak txertatu kontratuetan** | Hizkuntza-klausulak txertatu udal kontratuetan, herritarrek zerbitzua beren aukerako hizkuntza ofizialean jasoko dutela bermatzeko. | • Herritarrekin arreta zuzena duten zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulak txertatzea lehenetsi.<br>• Hizkuntza-klausulak daramatzaten kontratu guztien pleguak (teknikoak zein administratiboak) ele bietan argitaratu. | • Zenbat kontratutan txertatu dira hizkuntza-klausulak?<br>• Zenbat kontratutan bermatu da pleguen elebitasuna? | **Euskara Zerbitzua**<br><br>**Atal juridikoak**<br><br>**Kontratazioa**<br><br>**Itzulpen zerbitzua** |
| | | | | |

| Helburua | Neurriak | Ekintzak | Nola neurtu? | Arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| **Udalaren elebitasuna bermatu** | Erakundearen elebitasuna bermatu esparru guztietan: errotulazioa, karteleria, oharrak, bide-seinaleak, argitalpenak, iragarkiak, publizitatea, webgunea, gizarte sareak, jendaurreko ekitaldiak. | • Neurriak hartu elebitasuna bermatzeko: formazioa + itzulpen / zuzenketa / egokitzapen zerbitzua | • Zenbat urraketa larri antzeman dira?<br>• Urraketa horietako zenbat zuzendu dira? | **Euskara zerbitzua**<br><br>**Udal arlo guztiak**<br><br>**Itzulpen zerbitzua** |
| **Herritarren hizkuntza-hautua errespetatu administrazio elektronikoan.** | Tramitazio elektroniko guztietan administratuen hizkuntza-hautua errespetatu.<br><br>Administratuak hizkuntza-hauturik egin ez badu, komunikazio-elebidunak bermatu. | • Tramitazio elektronikoen azterketa egin.<br>• Jarraibide argiak eman.<br>• Plantillak sortu bi hizkuntza ofizialetan.<br>• Plantilla horiek egoki erabiltzen ikasteko trebakuntza eskaini. | • Tramite elektronikoen azterketa egin da?<br>• Zenbat plantilla-eredu sortu dira?<br>• Zenbat tramitetan aplikatu da? | **Euskara zerbitzua**<br><br>**SIB taldea** |

| Helburua | Neurriak | Ekintzak | Nola neurtu? | Arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| **Herritarren hizkuntza-hautua errespetatu aurrez aurreko zerbitzuan eta herritarrak ahaldundu, nahi izanez gero, euskara erabiltzeko.** | Ahoz zein idatziz, administratuen hizkuntza-hautua errespetatu.<br><br>Ez eskatu inoiz administratuari hizkuntza-hautua aldatzeko.<br><br>Herritarrak ahaldundu, nahi izanez gero, euskara erabiltzeko. Horretarako, euskara erabiltzeko aukera bisibilizatu. | • Udal zerbitzu guztietan gutxieneko langile euskaldun kopurua bermatu. Egon ezean, baliabideak / erraztasunak eman euskara ikasteko.<br>• Euskaraz jakin ezean, herritarrak euskaraz artatu ahal izateko protokoloa ezagutarazi.<br>• Arreta postuetan kartelak / identifikagarriak jarri, herritarrek euskara erabiltzeko aukera erraz identifika dezaten. | • Jendaurreko postuetan (HAZ / Leihatilak / Gizarte ekintza / Udaltzaingoa / Liburutegiak…) euskara erabiltzeko aukera ikusarazteko identifikagarriak jarri dira?<br><br>• Herritarren kexak kuantifikatu. | **Euskara zerbitzua**<br><br>**Arloetako zinegotziak eta zerbitzuburuak** |
| **Euskara = Lan hizkuntza** | Ahoz zein idatziz euskara, gaztelania bezalaxe, lan-hizkuntza bilaka dadin neurriak hartu. | • Barne komunikazio orokorretan elebitasuna bermatu.<br>• Zerbitzuz zerbitzu aztertu ze dokumentu bihurtu ahal izango liratekeen plantilla elebidun.<br>• Dokumentuen eredu elebidunak sortzeko eta berauek egoki erabiltzen ikasteko trebakuntza pertsonalizatua eskaini. | • Zenbat zerbitzutan egin da balizko plantilla elebidunen azterketa?<br>• Zenbat plantilla elebidun sortu dira?<br>• Zenbat langilek jaso dute trebakuntza plantilla elebidun horiek erabiltzen ikasteko? | **Euskara Zerbitzua**<br><br>**Arloetako zinegotziak eta zerbitzuburuak**<br><br>**Itzulpen zerbitzua** |